

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Jorge Oteiza Fundazio Museoak eta Pilar Oteizak hitzarmena sinatu dute

Batzorde tekniko bat sortuko da, iloba partaide izango duena

Martes, 29 de septiembre de 2015

Jorge Oteiza Fundazio Museoak eta Jorge Oteiza Embilen oinordeko Pilar Oteiza San Josék bien arteko desadostasunak alde batera utzi eta hitzarmena sinatu dute. Horren bitartez, Pilar Oteiza San Josék Jorge Oteiza Fundazio Museoari bermatzen dio Jorge Oteizaren obraren gaineko jabetza intelektualaren eskubideen ustiapena,

fundazioaren xedeak behar bezala betetzeko beharrezkoa den guztietan. Bere aldetik, Jorge Oteiza Fundazio Museoak konpromisoa hartzen du Pilar Oteiza San José fundazioaren kudeaketan txertatzeko irudi egokiena zein izan daitekeen aztertuko duela.

Halaber, hitzarmen horren bidez, Batzorde Tekniko bat sortuko da, Pilar Oteiza San José partaide izango duena, eta horren zeregin nagusia izango da Jorge Oteizaren obraren egiazkotasuna bermatzea, Jorge Oteizaren eskultura-lanen Katalogo Arrazoituari jarraipena ematea, eta katalogo hori artistaren gainerako literatura obrekin osatzea. Hitzarmena sinatu da Jorge Oteizaren eskultura-lanen Katalogo Arrazoituaren aurkezpenaren atarian, laster plazaratuko baita.

Jakina denez, Jorge Oteizak Fundazioari eta Alzuzako Museoari eman zion artelanaren jabetza materialaren eskubideen ustiapena, baina jabetza intelektualarena ilobari utzi zion, hainbat erabilerengatik etekina ateratzeko ahalmena barne, eta obraren erabilera baimentzeko edo debekatzeko.

Orioko artistaren eskultura lanen inbentarioa bi liburukitan bilduta dago, mila orrialdetan bere bizitzan zehar egin zituen 2.800 lanen berri ematen dutenak.



Oteiza Museoa.